

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Ocho siglos de romanización

Alberto Pérez de Laborda

TXERTOIA

192 orrialde

15 euro

Erromanizazioa gure inguruan

Azken garaian egin diren arkeologia aurkikuntzen ondorioz idatzitako liburua da Alberto Pérez de Labordaren *Ocho siglos de romanización. Del Nervión a los Pirineos*. Txertoia argitaletxeak plazaratu du eta duela gutxi Foruan, Oiasson, Castro Urdialesko Flaviobrigan, Sollube mendiko magaletan, Hazparden eta Garona Garaian aurkitutako protoeuskararen aztarnak aztertzen ditu. Arabako Iruña-Veleiako aurkikuntzak ere aipatzen dira liburuan, baita hango arkeologia berezitasunak ere. Horiek guztiak baliatuz gure inguruan zortzi mendeko erromanizazioa egon zela baieztatu du egileak, eta Bizkaian mintzatzen zen hizkuntza zahar bat izan zela, Koldo Mitxelenak aipatzen zuen protoeuskararen aurrekaria izan daitekeena. ■

leak, eta Bizkaian mintzatzen zen hizkuntza zahar bat izan zela, Koldo Mitxelenak aipatzen zuen protoeuskararen aurrekaria izan daitekeena. ■



Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna eta Nafarroako...

Baleren Bakaikoa

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

100 orrialde / 15,80 euro

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Itun Ekonomiak

Baleren Bakaikoa Azurmendik Udako Euskal Unibertsitate-rako zehazki aztertu dituen gaiak hauek dira: *Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna eta Nafarroako Ekonomia Hitzarmena*. Ekonomia ikasleentzat pentsatuta dagoen lana izan arren, diru publikoen gorabeheraz zerbait jakin nahi duten guztientzat ere interesgarria gerta daiteke. Azterketa egiteko honako materialak erabili ditu Bakaikoak, gaiaren gainean argitaratu diren hainbat artikulua eta liburuez gainera: duela 15 urte Bakaikoak berak argitaratu zuen *Autonomia Ogasunak eta Europako Komunitateko Aurrekontuak* liburua; EAEko 2002ko Ekonomia Ituna, eta Nafarroarako 2003an aldatu zen Ekonomia Hitzarmena. Lana, dena den, ikerketa dibulgetzaile gisa argitaratua dago. ■

Mutiko ehiztari baten lorpenak

Mutiko beltz baten abenturak kontatzen dizkigu *Bubu ehiztari* liburuak eta ezusteko atseginez beteta dago. Egun batez, mutikoaren tribuko gizonak alferkeriak jota altxa dira, eta ez dute ezertxo ere ehizatu egun guztian. Emakumeak oso haserre daude, jakina, eta Bubuk zer edo zer egitea erabakiko du. Aitari bere asmoen berri eman, eta hark ez dio eragozpenik jarriko, baina aholku bat emango dio: isilik ibiltzeko, animaliak ez baditu izutu nahi. Bubu, ordea, urduriegi dago aitari ezer entzuteko. Zaku handi bat prestatu du bere zereginerako. Zer ote darama han? (Irakurleak ireki eta jakin ahal izango du). Behin basoan, Bubuk ez du aitak emandako aholkua beteko. Zuhaitzetatik eroriko da, zarata eginez; intxaurrek jango ditu soinuaz ohartu gabe. Zer lortuko ote du? ■



Bubu ehiztari.

Cyril Hahn

IBAIZABAL

18 orrialde

14,50 euro

Luzaideko euskara aberatsa

Peio Kamino Kaminondok eta Patxi Salaberri Zaratiegik egindako lanaren izena *Luzaideko Euskararen Hiztegia*.da. Garaziko herri horretako hizkera bizian dago oinarrituta liburua, baina mamia osatzerakoan oraingo testuez eta iragan mendeetakoez baliatu dira egileak. Horregatik hartu dituzte kontuan, hitzen bilakaera aztertzeko, Bernat Etxepareren olerkiak; eta, halaber, XIX. mendeko Nafarroa Behereko gutun-predikuak, 1856ko Salaberri Ibarrolakoaren hiztegia eta Bonaparte printzearen hitz bilduma txikia, esate baterako. Nolanahi ere, XX. mendeko idazki franko ere erabili dituzte. Esate baterako, Jose Mari Satrustegik utzitakoak, Ana Mari Etxaidek 1989an argitara eman zituen argibide aberatsak, Aranzadi Elkartek 1990ean plazaratutakoak eta Euskaltzaindiak 1999an CD formatuan kaleratutako lana. ■




Luzaideko Euskararen Hiztegia

Peio Kamino, Patxi Salaberri

NAFARROAKO GOBERNUA

206 orrialde

12 euro



Sommer jauren istorioa

Patrick Süskind

EREIN

110 orrialde

13 euro

Agure baten izuaz urrikaldu zen mutikoa

Miren Lourdes Oñederrak xarma handiz euskaratu du Patrick Süskinden *Sommer jauren istorioa*. Protagonista bi ditu liburuak: mutiko garaian bizi izan zituen gorabehera ezti-mikatzak kontatzen dituen bata, eta gaixotasun baten ondorioz goizean goizetik gaua ondo ilundu arteraino kaletik ibili besterik egiten ez duen agurea. Inork ez du haren berri, baina kontakizuneko haurrak laster jakingo du gizonak klaustrofobia daukala. Sekula ez du gizon hura maitatuko, beldurra ere badio, apika; baina hala ere Sommer jauna errespetatu egingo du, batez

ere agurea bere bizitzako erabakirik garrantzitsuen hartzera doanean. ■

Iruñea Jorge Morenoren ehun irudi ederretan

Makina bat bazter atera ditu argazkitan Jorge Morenok –Bosniako gerra, besteak beste–. Iruñean jaio zenez, orain bere sorlekuaren irudiak bildu ditu liburu batean. Suak plazaratutako *Iruñea. Ehun paisaia* liburuan agertzen diren irudiak biziak dira, esanguratsuak, Nafarroako hiriburuan aurki daitezkeen alde handiak nabarmentzen dituztenak. Argazkiek berdin erakusten dute Zitadela

edo Telekomunikazio dorrea. Arkitekturarik modernoenetik Erdi Aroko erakinetara garamatza Morenok lan honekin. ■

Iruñea. Ehun paisaia

Jorge Moreno

SUA

128 orrialde / 19 euro



MIREN ARRATIBEL

«Protagonistarekin oso estu lotuta sentituko da irakurlea»

Misterio nobela baino gehiago da hau.

Norbaitek pentsa dezake misteriozko eleberri bat irakurtzera doala –badago hiltzaile bat, hilketa batzuk egiten dituen–, baina inor ez dadin nahastu esan nahiko nuke misterioak berak baino beste hainbat alderdik hartzen dutela garrantzia *Perfumea*-n. Hain zuzen ere, gizakia-ri loturiko egoerak eta jarrerak: bakardadea, bazterketa, hipokresia, norberak besteen onespina lortzeko duen premia...

Zer azpimarratuko zenuke Süskind-en lan honetan?

Egileak zein maisuki lortzen duen irakurlea protagonistaren larruan sartzea. Iruditzen zait eleberriaren hasiera samarretik eta azken lerro-raino irakurlea protagonistarekin oso estu lotuta sentituko dela, harekin bat eginik. Protagonistak badu bizitzan helburu tinko eta iraunkor bat, eta hori lortzera bideratuta egiten dituen ekintza guztietan berarekin nolabaiteko konplizitate- edo sortzen digu, baita ekintzarik gaitzesgarrienak egiten dituen ere.

Nolakoa izan da itzulpen lana?

Perfumea itzultzeko proposamena jaso nuenean, halako bertigo edo zorabioa sentitu nuen, ikusita zer erantzukizuneko lana zen; jakinik hau plazaratu ondoren ezingo nuela oharkabea igarotzeko perfumea neureganatu (kar, kar). Dena den, baiezkoa ematea erabaki nuen, eta ez naiz batere damutu. Plazer hutsa izan da niretzat lan hau itzultzea. Izan ditut hainbat zailtasun, jakina: deskribapenak usaimenaren bidez adierazteko, eta batez ere errealismo magi-ko ukitua duten pasarteak islatzerakoan.



egileari galdezka

Usainik ez zuen gizonaren usaimen berebizikoa

Patrick Süskind-en *Perfumea*. *Hiltzaile baten historia* nobelako protagonista- ren amak jaio zen

unean eten nahi izan zuen haren bizitza, eta geroztik inoiz ez zuen gizaki bakar baten maitasun izpirik jaso ahal izan. Trukean-edo, berak grina gaiztoz gorrotatu zuen gizateria osoa. Baina bizi-rauten hain azkar ikasi behar izan zuen mutilak, azkar ikasi zuen bizitzan aurrera egin ahal izateko gelditzen zitzaion bidea. Perfumegintzan sekula inork lortu ez dituen sor-kuntzak egiteko gai izateaz aparte, damurik gabe hil zituen pubertaroan zegoen neskato andana, zorion sentsazioa eman-go zioten perfumerik hoberenak eskuratu ahal izateko. Nolanahi ere, *Perfumea* euskaratu duen Miren Arratibelek ohartarazi duen bezala, eleberri hau ez da hiltzaile baten ibilerak kontatzen dizkigun lana huts-hutsean. Patrick Süskind-



Perfumea

Patrick Süskind

ALBERDANIA

294 orrialde

20 euro

den lan honi merezi duena ematekotan, gutxienez XVIII. mendeko Frantziako gizartearen erradiografia gupidagabea dela esan beharko baikenuke. Sortu zen une beretik baztertu zuen gizarteak usainik gabeko gizona eta horrela bihurtu zen hiltzaile; bere usaimen ezin finagoaren ondorioez baliatu zen, bai, baina gizarteari estimurik txikiena ere eskaini gabe. ■